

Zornotzako jaiak · Gehigarria



"Pregoian 'askatasun' berba ez da faltako, beldurrak auzoz aldatu behar duelako, kaleak eta jaiak gureak direlako"

Akelarrek, Suhaziak taldeak, Talde Feministak eta M8 plataformak osatzen duten Zornotzako Mugimendu Feministak jaurtiko du txupinazoa, uztailaren 15ean. Talde feministetan lanean dauden eta egon diren emakumeen lanaren aitorza dela azpimarratu dute. • **13-19**



10 urteko mutiko baten heriotzak samina eragin du Abadiñon

Abadiño • Mandiayek bizia galdu zuen Muntzaratzeko merendero ondoko errekan itota. Martitzenean elkarretaratze isila egin zuten Abadiñoko udaletxe aurrean. Umearen senitartekoez eskerrak eman zizkieten abadiñarrei. • **6**



Tourrak zalez bete zituen Durangaldeko bide bazterrak astelehenean

Durangaldea • Astelehena txirindularitzaren jai handia izan zen Durangaldean. Tourraren hirugarren etapa Zornotzan hasi zen eta Durangaldea zeharkatu zuen zaleen gozamenerako. • **2-3**

Udaleko politikarien liberazioek eta soldatek eztabaida piztu dute

Durango • EAJk eta PSE-EEK proposaturiko zazpi udal ordezkarien liberazioaren sistema onartu zuten joan zen martitzeko udalbatzarrean. • **4**



Zezipia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758



UNAI GARAY

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Jendetza batu da Durangaldeko bide bazterretan Tourra ikusteko

Argazkiak: AINHOA IRAOLA

Hirugarren etapa Zornotzan hasi zen, astelehenean

DURANGALDEA • J.G.

Tourreko hirugarren etapa hasieragaz ekin zion asteari Zornotzak. Irteera puntuan jendetza batu zen txirrindularien aurkezpena bertatik bertara jarraitzeko eta lasterketa irteten ikusteko. Batzuk txirrindularitza zaleak ziren eta gogotsu zeuden miresten dituzten kirolariak aurrez aurre ikusteko. Beste askok Tourrak sortzen duen giroa ezagutu besterik ez zuten gura. Behin lasterketa hasita, egun osoko egitarauaz gozatu zuten Zornotzan. Zea Mays eta Bulego

taldeen kontzertuekin amaitu zuten eguna.

Lasterketaren jarraitzaileek, eguneko lehenengo ordutik, ibilbide osoan zehar hartu zuten lekua. Berrizko bide bazterrean, eskumako argazkiko aitita eta iloba topatu zituen ANBOTOk kamerak. Traktorea hartu, eta lehenengo lerroan luxuzko egongela prestatu zuten, etxean telebista ikusi daitekeen legez errepidean txirrindulariak ikusteko. Eskualdean ez da irudimenik falta. Ibilbideko gainerako puntuetan ere, ikurrinak alde guztietan egon ziren.





Durangoko udalbatzak zazpi liberatu izatea onartu du, EAJren eta PSE-EEren botoekin

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak kontra egin, eta azken lau urteotako liberazio sistema mantentzea eskatu dute. PPko Carlos García abstenitu egin da, liberazioa onartzera "sekula izan duen soldatarik txikiena izatera" pasatuko litzatekeela argudiatuta



Martitzenean ezohiko osoko bilkura egin zuten Durangoko udaletxean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udal ordezkarien soldatek eta liberazioek eztabaida iturri izaten jarraitzen dute. Asteon, datozen lau urteetarako antolaketa egitura onartu dute udalbatzan, eta bertan argi geratu da gobernu taldeko eta oposizioako kideen iritzia kontrajarria. Gobernu taldeak orain astebete aurkezturiko libera-

zio eta soldata sistemari eutsi dio. Proposamen hori martitzeneko osoko bilkurara eraman zuten eta planteamendu horrek aurrera egin zuen, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak kontra bozkatu zuten. Alderdi biek aurreko legegintzaldiko soldatak mantentzea eskatu zuten. Eskari hori, baina, ez zen

tramitatzera heldu. Gobernu taldearen proposamenak aurrera egin zuen. Hau da, Durangoko udalbatzak zazpi liberatu izango ditu aurrerantzean. Planteamendu horren arabera, gobernu taldeak lau liberatu izango ditu, eta hiru oposizioak; talde politiko bakoitzak bat. Aurreikuspenen arabera, soldatek 377.172 euro har-

tuko dituzte udal aurrekontutik, urtero-urtero.

Dena dela, ez dago argi osoko bilkuran onarturiko liberazio sistema guztiz beteko den ala ez. Izan ere, PPko Carlos Garcia ez du argitu berari dagokion liberazioa onartu egingo duen. Zinegotzi popularrak "kontuak egin" gura ditu, liberazio hori onartzera "sekula izan duen soldatarik txikiena izatera" pasatuko dela argudiatuta. PPko zinegotziaren botoa ez zen giltza izan osoko bilkuran, EH Bilduko Ima Garrastatxu ez zelako aretoan egon. Horregaitik, koalizio gobernuak (EAJ eta PSE-EE) ez zuen Carlos Garciaen aldeko botoa behar izan proposamenak aurrera ateratzeko.

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak aurreko liberazio sistemari eustea eskatu zuten, soldatak "gehiegizkoak" zirela iritzita. Diru kopuru gutxiago erabilita, "duran-garren mesedetan jende gehiago lanean ipintzea" proposatu zuten talde biek. Josune Escotak (EAJ) adierazi zuen "soldata egokiak" zirela, eta EUDELe markaturiko parametroak izan zituen ahotan. Jessica Ruizek (PSE-EE) gaineratu zuen egungo sistemagaz gobernu taldeko liberazioetan diru gutxiago gastatzen dela, eta oposizioak aukera gehiago dituela.

Kopuruak

PPko zinegotziak berari dagokion liberazioa onartuko duen ala ez oraindino erabaki ez badu ere, Durangoko Udalean honako sistema hau sartuko da indarrean:

- **Mireia Elkororibe** (alkatea, EAJ): 77.928 euroko soldata gordina urtean.
- **Jésica Ruiz** (1. alkateordea, PSE-EE): 62.343 euro.
- **Sara Oceja** (2. alkateordea, EAJ): 62.343 euro.
- **Asier Perugorria** (EAJ): 43.640 euro.
- **Iker Urkiza** (EH Bildu): 43.640 euro.
- **Jorge Varela** (Herriaren Eskubidea): 43.640 euro.
- **Carlos García** (PP): 43.640 euro.

Durangoko Udala eta ETS prest daude "irtenbide adostua" lortzeko tren geltoki zaharraren oruberako

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sareak eta Durangoko Udalak lehenengo bilera egin dute tren geltoki zaharraren orubearen etorkizunaz berba egiteko. Eragile guztiak prest agertu dira "zuzenbidearen eta eko-

nomiaren ikuspegietatik" auziari "irtenbide adostua" bilatzeko. Bere partetik, udalak adierazi du "ahalik eta azkarren" hasi gura duela lanean "eraikinen altuera jaitsiko duen eta durangarren beharrezane erantzungo dien proiektuan".

Orain aste biko ebazpen judizialari buruz, hiru aldeak bat etorri dira PERIak "legezkotasuna egiaztatu" egiten duela esatean, "betiere etxebizitza babestura bideraturiko ehunekoak errespetatzen badira". Lehenengo pauso lez, trenbidearen trazadura zaharraren erabilera lagatzea hitzartuko dute. Desafekzio hori egin eta gero, udalak eremua urbanizatzeko aukera izango du.



Udaleko, Jaurlaritzako eta ETSko arduradunak.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023 uztailaren 7a
21. urtea - 943. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Zornotzako aurrekontu parte hartzaileetara proposamenak aurkezteko epea, zabalik

Abuztuaren 31n amaituko da proposamenak egiteko epea

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udala 2024ko aurrekontuetara begira dago jada eta 900.000 euro ipiniko ditu aurrekontu parte hartzaileetarako. Herritarrek udalaren web atariko formularioa beteta edo Herritarrentzako Arreta Zentrora joanda aurkeztu beharko dituzte proposamenak. Hori bai, udalak zehaztu du interes orokorreko proposamenak balioetsiko dituela, eta ez dituela langileak, enpresak edo autonomoak kontratatuzko gastuei loturiko planteamenduak edo bere eskumenekoak ez diren proiektuak onartuko. 16 urtetik gorako zornotzarrek, elkarteek eta fundazioek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Ideiak aurkezteko epea abuztuaren 31n amaituko da.

Hortik aurrera, udaleko bulego teknikoek zein juridikoek proposamenak aztertuko dituzte. Irailaren 1etik 30era arteko epea izango dute horretarako. Hirugarren eta azken fasean, udalak proiektuak baliozkotu eta lehenetsiko ditu, 2024ko udal aurrekontuetan txertatzeko.

Zornotzako Sabino Arana kalea.



Larreko kiroldegiko gela bat.

Pilates, GAP eta spinning saioak iraileko eskaintzan

Uztailaren 10era arte zabalik egongo da epea Larrean irailetik aurrera emango dituzten ikastaroetan izena emateko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Larreko kiroldegia hainbat kirol ikastaro antolatu du datorren ikasturteari begira. Helduentzako eskaintzan, spinning, GAP eta pilates ikastaroak nabarmentzen dira. Eta, umeen programan, igeriketa saioak. Ikastaroetan izena emateko epea uztailearen 10era arte egongo da zabalik. Horreta-

rako, Larrea kiroldegiko harre-rara edo udalaren web orrialdera jo beharko da. Izen-emate kopuruak eskaintako plazak gainditzen baditu, udalak zozketa egingo duela jakinarazi du. Kasu horretan, uztailearen 12an egingo dute zozketa. Azkenik, hilaren 14an jakinaraziko dute nori egokitu zaion plaza.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, lurreta

"Eskerrak eman gura dizkiegu euskal herritarrei; abadiñarrei batez ere"

Adin txikiko batek bizia galdu zuen domekan Abadiñon, Muntsaratzeko merendero ondoko errekan. Mutikoa errekarra jausi eta itota hil zen. Heriotzak samina eragin du

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mandiayeren heriotzak samina eragin du Abadiñon. Domekan, baloiaren atzetik zihoala, 10 urteko mutikoa errekarra jausi zen.

Ertzaintzako urpekariek eta suhiltzaileek errekatik ateratzea lortu zuten, baina ezin izan zuten bere bizia salbatu. Unean bertan bihotz-biriketako bizkortzea

egin zioten arren, umea hil egin zen. Udal arduradunak berehala joan ziren ezbeharrak izan zen tokira. Han, guneko egokitu eta laguntza psikologikoa eman zioten

umearen senitartekoei. "Familia-gaz eta Abadiñoko komunitate senegaldarragaz egoteko unea da, hain trantze gogorrean babesteko unea", adierazi zuen Mikel Urrutia alkateak.

Astelehenean, elkarretaratze isila egin zuten. Ehun bat lagun batu ziren udaletxe aurrean, eta Mandiayeren senitartekoei eskerrak eman zizkieten bertaratutakoak. "Eskerrak eman gura dizkie-

Abadiñoko Udalak bere gain hartu ditu umearen gorpua Senegalera aberriratzeko gastuak

gu euskal herritarrei; abadiñarrei batez ere. Ez daukagu barbarik. Asko egin duzue gure alde. Berba egitea ere kostatzen da, baina ahalginduko gara eskerrak ematen", esan zuen Mandiayeren osabak.

Abadiñoko Udalak hiru dolu egunera deitu zuen eta banderak haga erdian egon dira zenbait egunez.

Bestalde, Abadiñoko Udalak bere gain hartu ditu umearen gorpua Senegalera, bere bizilekura, aberriratzeko gastuak. Baita adin txikikoaren aitaren bidaia gastuak ere, Senegaldik Abadiñorakoak.

Haurrentzako tailerrak eta jolasak, gaur, Atxondoko igerilekuetan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko igerilekuak zabalik daude ekainaren 24tik, eta igerilekuen kudeaketaz arduratzen den Emtesport enpresak hainbat ekintza antolatu du uztaileko. Gaurko, uztaileak 7, haurrentzako tailerrak eta jolasak antolatu dituzte. 11:00etatik 14:00etara bitartean izango dira. Datorren martitzenean, uztaileak 11, Busti Zaitex eguna ospatuko dute. Eta uztailearen 21ean, berriro ere haurrentzako tailerrak eta jolasak egongo dira.

Ekintza hauek uztailean egingo dituzte, baina igerilekuko kudeatzaileek aurreratu dute abuztuan eta irailean jarduera gehiago egingo dutela.

Igerilekuko tabernari dago-kionez, haren lizitazio prozesua aurrera doala jakinarazi dute Atxondoko Udaletik. Eta azaldu dute udalak informazio gehiago emango duela datozen egunetan, eta taberna laster zabaltzea itxaroten dutela.



Mandiayeren osaba, astelehenean egindako elkarretaratzean.

Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak 10.000 euro murriztu du bere soldata

EAJ kritikoa agertu da "neurri populista" dela argudiatuta

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen asteko osoko bilkuran, Abadiñoko Udaleko ordezkarien liberazioak zeintzuk izango ziren erabaki zuten eta horrek ika-mika piztu du alderdien artean. Legegintzaldi honetan, Mikel Urrutia alkatea (EH Bildu) lanaldi osoan arituko da eta urtean 47.272 euro gordin kobratuko ditu. Urrutiak 10.000 euro murriztuko du bere soldata. Edurne Maguregi (Abadiñoko Independente Berriak) izango da Abadiñoko alkateordea, lanaldi osoan. Maguregik ere nomina txikiagoa izango du eta urtean 43.000 euro gordin kobratuko ditu. Bestalde, aurrekontuen birbanaketa horregaz gobernu taldeak %50eko dedikazio partzialeko bigarren pertsona bat gehitu ahal izango du, eta hori Naiara Bildosola (EH Bildu) izango da. Bildosolak 21.500 euro gordinetako soldata izango du. Baita oposizio-

ko kide batek ere (EAJ). Guztira, pertsona bi egongo dira lanaldi osoan Abadiñoko Udalean, eta beste bi lanaldi erdian.

"Soldata jaitzita, guztizko gastuari eutsita, lehentasunezkoak diren eta hobetzeko konpromisoa hartu dugun arlo horietan guztietan beste pertsona bat sartu dezakegu dedikazio partziala izango duena", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

EAJ kritikoa

EAJ kritikoa agertu da gobernu taldeak harturiko erabakiagaz, eta neurri honek udalari "8.077 euroko gainkostua" ekarriko diola azaldu du. "Neurri populista iruditzen zaigu. Titular batean esaten da alkatearen soldata jaitzi egingo dela, baina, aldi berean, liberazio erdi bat sortzen da, alderdi politiko berarentzat", kritikatu dute jeltzaleek.

Lukiek, Liher eta Luhartz Mendiolako sankristobaletan

Gaur gauean autobus zerbitzua egongo da; Traña-Matienan, Zelaletan eta Muntsaratzan egingo ditu geldialdiak

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gaurtik astelehenera bitartean, Abadiñoko Mendiola auzoan sankristobalak ospatuko dituzte. 18:00etan emango diete hasiera jaiei, Donien Atxa jasota. Ondoren, berakatz zopa jango dute eta 22:30ean Lukiek eta Liher taldeen kontzertuak dituzte. Zapatuan, 11:00etan hasita, artisau eta

ekoizleen azoka egongo da, eta 13:30ean auzo omenaldia egingo diote Jose Antonio Azkorbebeitia 'Azkorbe' zenari. 14:00etan bazkaria egingo dute, Onintza Enbeita eta Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolariak girotuta. 19:00etan tortilla txapelketa egongo da, eta Luhartz taldearen erromeriak emango dio amaiera egunari.



Mendiolako jaietako aurreko edizio bateko argazkia.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzako Herriko taberna itxita egongo da abuztu amaierara arte. Bien bitartean, sozializatzeko espazio zabal bakarra egongo da herrian: Urkioil gasolindegiko taberna eta terraza. Urte bi daramatza zabalik, eta, dituen ezaugarriengaitik, izurtzarrak ez ezik ingurueta-ko herrietako jendea ere batzen da berta; tartean, Durangokoa.

Astelehen arratsaldea, gasolindegiko terrazan. Zurezko egiturak babesturiko bost mahaietatik hiru okupatuta daude. Batean, Peio, Iñigo eta Beñat, 22, 27 eta 20 urteko gazteak solasean dabilta freskagarri bana hartzen duten bitartean. Hirurak durangarrak dira. "Lasai eta euren kontura" egotea gustatzen zaiela diote, Durangoko "burrundadatik" kanpora. Herriko tabernara sarritan joaten ziren lehen, baina hura itxita dagoenetik gasolindegiko terrazan batzen dira. Joera orokorra dela diote: "Ez dakigu Herriko taberna itxita dagoelako ala uda heldu delako den, baina azkenaldian jende gehiago ikusten dugu hemen". Andoni Axpe Urkioileko arduraduna ere konturatu da joera horretaz. Herriko taberna itxi zenetik "jende gehiago" doala ikusten du.

Aparkatzeko, "erraz"

Terraza horrek duen beste abantaila bat da "erraz" aparkatu daitekeela bertan. Horixe azpimarratu du bere alabagaz freskagarri bat hartzen dagoen Gorkak. Kasu honetan ere, durangarra da bezeroa. Horrez gainera, "gustura" eta "iparreko haizetik babestuta" egoteko "espa-

Izurtzako gasolindegiko terraza bilgune izurtzarrentzat eta ingurueta-ko herritarrentzat

Plaza ondoko Herriko taberna itxita dagoenetik bezero gehiago dituztela esan dute Urkioil gasolindegiko arduradunek



Peio, Iñigo eta Beñat durangarrak Izurtzako Urkioil gasolindegiko terrazan.

zio atsegin" bat eskaintzen duela nabarmendu du.

Mahai bat haratago, Goretik beste gako bat eman du, "lasaitasunaz" gainera: "Ohiko tabernak kafea hartzera" geratzen diren bezeroak ere aipatu ditu Axpek. 06:00etatik 22:00etara egoten da

industrialde baten ondoan dago eta arratsalde-pasa doazenetatik aparte, goizeko txandan lanera sartu aurretik gosaltzera eta "lehenengo kafea hartzera" geratzen diren bezeroak ere aipatu ditu Axpek.

06:00etatik 22:00etara egoten da

zabalik taberna. Kafea eta gosaria (opilak, zukua...) eskaintzen dituzte. Hortik aurrerakoa autozerbitzua da. Norberak hartzen ditu freskagarriak hozkailutik, eta bestelako produktuak dendatik.

Urkioilatik Otxandiora bidean

beste gasolindegi bat du Urkioilek. Hango barra Izurtzako baino handiagoa da eta, oraintsu, mahaia ipini dituzte kanpoan, terraza lez. Otxandioko Udalak bidegorri bat egin berri du Anteparaluzeta auzoa gasolindegiaz lotzeko.

Itsaso Pradera eta Laura Saez txapeldun Mallabiko frontenis txapelketan

MALLABIA • J.D.

Joan zen asteburuan estatuko frontenis jokalaririk onenak batu zituen Mallabiko txapelketak, eta bertan euskaldunak nabarmendu ziren. Lehenengo, zapatuko binakako txapelketan, Itsaso Pradera mallabitarrak eta Laura Saez gasteiztarrak Espainiako txapeldunak diren Ana Garcia eta Andrea Campo salamancarrak menderatu zituzten: 14-9. Ondoren, domekako buruz burukoan, Maialen Bilbao durangarrak oso estu hartu zuen Ana Garcia Espainiako buruz buruko txapelduna, eta tanto bakarraren aldegaitik galdu zuen: 16-15. Azkenik, 16 urtetik beherako txapelketa Goizon Odiagak irabazi zuen.

Astero 50 bat ume parte hartzen dabilta Mañariko udaleku arrakastatsuetan

Aurten udaleku ibiltariak ere antolatu dituzte lehenengoz



Hainbat gaztetxo aurtengo Mañariko udalekuetan. GURE

MAÑARIA • J.D.

Durangoko Gure kooperatibak Mañarian antolatzen dituen udalekuak arrakastatsuegoak dira urterik urtera. Aurten, uztailearen 21era bitartean, 50 bat ume izango dituzte astero, gehienak mañaria-

rrak. Urterik urtera adin tartea handitu egiten dute, nagusienek parte hartzeko aukera izan dezaten. Aurten 16 urtera artekoak dabilta. Nagusienekin udaleku ibiltaria egingo dute lehenengoz datorren astean, kostaldetik.

J Martina, Brigade Loco eta Gozzue taldeen kontzertuak, Otxandioko jaien barruan

Santa Maña jaiak uztailearen 15etik 23ra ospatuko dituzte



J Martina taldea.

OTXANDIO • J.D.

Gaur, jai batzordeak eta udalak publiko egin dute Otxandioko jaietako egitaraua. Musika kontzertuei dagokienez, J Martina, Brigade Loco, Gozzue eta Maixa eta Malakias taldeek joko dute plazan,

uztailearen 22an. Uztailearen 15ean kontzertu gehiago egongo da, Gaztetxean. Desgaraian, Arratians eta DJ Rosamari taldeak arituko dira bertan. Gaur, Argi, Beranduegi eta Joselu Anaien erromeriek osatuko dute musika eskaintza.

UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak
irailaren 15era arte

Informazio gehiago
www.anboto.org webgunean

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

UZTAILEKO ZOZKETAK



Uxarte sagardotegian bi pertsonentzako jatordua.



Herria tabernan bi pertsonentzako gosaria. Durango.

**Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.*

IRABAZLEAK

Gosaria Xiberun: Urtzi Rementeria Zubero

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Zaldibarko hondakindegia "jausteko arriskua" dagoela salatu dute manifestazio jendetsu batean

Zaldibar Argitu plataformak dozenaka lagun batu zituen joan zen bariku arratsaldean egindako mobilizazioan

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibar Argitu herri plataformak, Ekologistak Martxan taldeak eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak elkarlanean deituta, manifestazioa egin zuten aurreko asteko barikuan Zaldibarren. Dozenaka lagun batu ziren hondakindegia "arrisku egoera" salatzeko eta Eusko Jaurlaritzari ardura hartzea exijitzeko. "1.240 egun igaro dira Zaldibarko Verter Recycling zabortegia

amildu zenetik, azken urteotako hondamendi ekologiko, sozial eta politikorik handienetarikoa gertatu zenetik. Oso kezkatuta gaude, zabortegia amildu zenetik egindako egonkortze lanek hutsune nabariak utzi dituztelako, eta egoera bideratzeko neurriak berehala hartzeko exijitzen dugu. Ez gara alarmistak, baina alarma guztiak piztuta daude eta jakin badakite hori", azaldu zuten manifestazioaren amaie-

ran. Deitzaileen esanetan, zabortegiaren "egungo egoera ez da 2020ko otsailaren 6koa baino hobea". Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Geologia y Geotecnia Larrea S.L. enpresari eskaturiko txosten geologikoaren arabera, hondakin masa ez da egonkorra. "Apirilean, Segurtasun Faktorea delakoa, FS, 1,15koa zen, eta joera beheranzkoa zuen; 1. baliora jaitsiz gero, eraitsi egin daiteke", azpimarratu zuten. Jaurlaritzak berak, 2021eko abuztuaren amaizuetan, amaitutzat jo zituen egonkortze lanak, eta data horretan 1,6koa zen FS baldintza lehorretan (drainatze akatsen baldintzetan 1,4koa zen), iturri berdinen arabera. "Oso garrantzitsua da egungo arrisku egoeraren berri ematea bizilagunei. Eta Eusko Jaurlaritzari premiazko neurriak hartzeko eta beste hondamendi bat saihesteko eskatzen diogu", gaineratu zuten.



Barikuko mobilizazioaren irudi bat.

1840ko ezpaten erreprodukzioak Berrizen

A. Arellano 'Tony' artisauak egin ditu erreprodukzioak



San Pedro bezperako entseguan estreinatu zituzten ezpatak.

BERRIZ • A. M.

Berrizko ezpatadantzariak 1840ko ezpaten erreprodukzioak estreinatu dituzte herriko jaietan; Berrizko Udalak eta Ireminé eta San Lorentzo dantza taldeek elkarlanean eskatu dituzte erreprodukzioak, eta

Toledoko (Spainia) Antonio Arellano 'Tony' artisauak egin ditu. Ezpatek brique estiloko brontzezko kirtena dute, eta 900 gramoko pisua. Ezpatez gainera, haritz zurez eginiko makila berriak eta txilin berriak ere estreinatu dituzte.

Hainbat diru laguntza eskatzeko epea zabaldu dute Berrizen

BERRIZ • A. M.

Berrizen hainbat alorretako diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du udalak. Euskara ikastaroetarako; haurreskolan seme-alabak dituzten familientzako; eta herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen arloan lan egiten dutenek errotuluak euskaratzeko diru laguntzak eskatzeko aukera dago astelehenetik. Laguntza horiek bide telematikoz eskatu daitezke, www.berriz.eus egoitza elektronikoen bitartez; diru laguntzak, laguntzak eta bekak deritzonek atal bat dago bertan. Informazio gehiagorako, 946 824 036 telefonoa ipini du Berrizko Udalak.

Elorrioko EH Bilduk ez du deialdirik egin Berrio-Otxoa Eguneko elizkizunera joateko

Aurten ez dute egin alkatea buru izaten zuen agintarien kalejira. "Alde politikoa eta erlijiosoa" bereiztea erabaki dutela azaldu du Julene Lazkano alkateak



Berrio-Otxoa Eguneko elizkizuneko argazkia.

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Orain arte tradizioa izan da Berrio-Otxoa Egunean instituzioetako arduradunek, alkatea buru zutela, kalejira egitea udaletxetik elizara. Alkateak aginte makila eramaten zuen eskuetan. Behin elizara helduta, mezan geratzen ziren. Bada, EH Bilduren gobernu berriak tradizio hori aldatzea erabaki du. Julene Lazkano alkateak azaldu duenez, "Berrio-Otxoa Eguneko alde politikoa eta erlijiosoa bereiztea" erabaki dute. "Ez dugu elizkizunean parte hartzeko deialdirik egin. Hala ere, joan gura duena parte hartzerantz animatzen dugu", azaldu du alkateak. Lazkanok azaldu duenez, udaleko gainerako alderdiei jaiegun honen aurretik eman zien erabaki politikoa horren berri.

Martitzeneko elizkizunak hainbat herritar batu zuen. Tartean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea, Jose Antonio Ardanza lehendakari ohia, Mikel Arruabarrena Elorrioko EAJko zinegotzia eta Carlos García Duranogoko PPko zinegotzia.

Dagoeneko osatu dituzte Elorrioko Udaleko sailak

Iragarritako moduan, Julene Lazkano izango da alkatea, eta Maria Herrero jarraituko du alkateorde karguan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Julene Lazkano buru duen Elorrioko Udaleko gobernu talde berriak dagoeneko banatu ditu udaleko sail eta taldeak. Honela banatu dituzte: alkateak, Julene Lazkanok, Gizarte Politiken, Hezkuntzaren eta Parte-hartzearen ardura izango du; María Herrero alkateordea Pertsonalaz, Ogasunaz eta Hirigintzaz arduratuko da; eta Kirol eta Gazteria Saila Beñat Cuadradorek arduratuko da. Kultura eta Jaiak eta Euskara Saila Itsaso Basaurik eramango ditu; Oier Olagortak Ingurumena eta Landa Garapena; eta Alazne Mendizabalek Berdintasun Saila eta Turismoa eta Ondarea.

Talde bozeramaileei dago kienez, EH Bilduren bozeramaile María Herrero izango da, EAJrena Mikel Arruabarrena, eta Elkarrekin Elorri taldearen bozeramaile Joseba Andoni Fernández.

Osoko bilkurak hile birik behin egingo dira, lehenengo egunetan, 18:30ean. Hurrengo osoko bilkura uztailearen 6an izango da, eta irailekoa 14an, herriko jaiak direla eta.

Elorrioko osoko bilkurak bi hilean behin egingo dira, hileko lehenengo egunetan, 18:30ean

EAJ "haserre"

Bestalde, EAJko kideak kritiko agertu dira gobernu talde berriagaz. "Gobernu taldeak liberatu bi izango ditu jardun osoan, lehenengoz: Julene Lazkano alkatea eta María Herrero alkateordea. Gainera, alkateordeak alkateak baino ordainsari handiagoa izango du", salatu dute ohar baten bitartez.

55 bikotek parte hartu dute Iurretako Padelko klubak antolaturiko padel torneo solidarioan



Río de Oroko Mikel del Arco, txapelketako azpitxapeladunekin.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Padelko kluba "oso pozik" dago joan zen asteburuan antolaturiko torneo solidarioak izandako erantzunagaz. Ekimenak Río de Oro elkartearen hainbat proiektutan laguntzea zuen helburu, eta bertan 55 bikotek parte hartu zuten guztira. Bada, izen-ematekin lorturiko diruaren laurdena errefuxiatu sahararrei laguntzeko erabiliko da; baita euro biko salgai ipinitako errifagaz bildutakoa ere. Denera, 900 bat euro batu dituzte, azaldu dutenez.

Bakarrizketa saioa, gaur, Garaiko Elizabarrin

Emanaldia 19:00etan izango da. Markel Sánchez 'Torrai'-k eta Joana Ocaña 'Nona'-k parte hartuko dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaitarrek asteburua barre algaraka hasteko aukera paregabea izango dute gaur. 19:00etan, Markel Sánchez 'Torrai' eta Joana Ocaña 'Nona' durangarrek umorezko bakarrizketa saioak egingo dituzte Elizabarrin. Jarduera hau Garaiko Trumoitte Kultur Elkarteak antolatu du, udalaren laguntzagaz. Trumoitteko

kideek ekitaldi kultural gehiago iragarri dute uztaileko.

Bidea egiten

Sánchez eta Ocaña umoregileek hainbat bider parte hartu dute Euskal Herrian Euskarazek Durangon antolaturiko bakarrizketen jaialdian. Azken jaialdia urtarrian egin zen, eta ordutik hona eskualdeko hainbat herritan ibili dira bakarrizketa saioak egiten.



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOLOGIA PEDIATRIKOA · PADI · HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Elixabete Etxanobe, makila eskuetan.

Elixabete Etxanobe otxandiarra da Bizkaiko ahaldu nagusia

EAJren eta PSE-EEren botoei eskerrak izendatu dute Bizkaiko ahaldu nagusia Elixabete Etxanobe otxandiarra

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Elixabete Etxanobe otxandiarra izendatu dute Bizkaiko ahaldu nagusi, Batzar Nagusiek eguaztenean Gernikako juntetxean egindako bilkuran. EAJren 23 batzarkideen eta PSE-EEren zortzi batzarkideen botoak lortu zituen. Hori horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak lehenengoz izango du emakume bat buru.

Bozketa amaituta, Etxanobek zin egin zuen Gernikako arbolaren azpian, eta Bizkaiko Batzar Nagu-

sietako presidente Ana Otaduiren eskutik aginte makila jaso zuen.

Etxanobek datozen lau urteotarako lan ildo nagusiak azaldu zituen. Bizkaia “berdinzaleagoa eta gizarte kohesionatu eta aurreratua” lortu gura duela adierazi zuen.

Itxaso Berrojalbiz, orain arte Zornotzako zinegotzi eta Bizkaiko batzarkide izan dena, Bizkaiko ogasun diputatu izango da aurrerantzean.

Durungaldea asteen

Anbotoko Dama Nagusien Elkarreak bingoa eta mokadua antolatu ditu gaurko

ATXONDO | Gaur arratsalderako, uztaileak 7, Atxondoko Anbotoko Dama Nagusien Elkarreak ekintzak antolatu ditu. 18:00etan, Atxondoko frontoian, bingoan arituko dira. Bingoaz gainera, bertaratutakoek mokadu batez gozatzeko aukera izango dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, aurrez izena eman beharko da 676 604 788 telefono zenbakira deituta.

Durangon eta Zornotzan pertsona bana atxilotu dute droga trafikoagaz lotuta

DURANGALDEA | Guardia Zibilak, Europol-egaz eta Portugalgo eta Brasilgo poliziek lankidetzan, aldian-aldian Europara “kokaina kantitate handiak” bidaltzen zituen nazioarteko sare kriminal bat desegin du. Guztira, 24 pertsona atxilotu dituzte operazioaren barruan; euretariko bi Durangon eta Zornotzan, Guardia Zibileko iturrien arabera.



Gure Zirkua uztailearen 7tik 16ra bitartean, Elorriko Ganondon

ELORRIO | Astebete pasatxo, Euskal Herriko artistarik trebeenak Elorriko Ganondo parkean ipini duten karpan egongo dira. Uztailearen 7tik 16ra bitartean, nortasun berezi, xeble eta irribarretsua duten artistek hainbat saio egingo dute Elorrion. Gure Zirkuko kideek jakinarazi dutenez, Elorriko emanaldiak Bizkaian egingo dituzten azkenak izango dira aurtien. Hauek izango dira egingo dituzten saioen egun eta orduetegiak: uztaileak 7, 19:00etan; uztaileak 8, 18:00etan eta 20:30ean; uztaileak 9, 11:00etan; uztaileak 13, 19:00etan; uztaileak 14, 19:00etan; uztaileak 15, 18:00etan eta 20:30ean; eta uztaileak 16, 19:00etan.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ESKELAK

946 816 558 • anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



AMOREBIETA-ETXANOKO

JAIK 2023



AMOREBIETA-ETXANOKO JAIK 2023

KARMENAK ETA SANTANATXU

UZTAILAK 15 - 27



www.amorebieta-etxano.eus

100 jarduera baino gehiago dituen egitaraua, herriko jai nagusietan etxean geratzeko aitzakiarik egon ez dadin

Karmen eta Santanatu jaiak uztailearen 15ean hasiko dira, mugimendu feminista osatzen duten kideek botariko txupinagaz. 20:00etan izango da



Zornotzako Mugimendu Feminista osatzen duten kideetarako batzuk, Iban Ibarretxe ohorezko danbor jotzailea eta Ainhoa Salterain alkatea.

JAIK • EKAITZ HERRERA

Horixe dirudi. Etxean geratzea gatxa izango dela. Izan ere, jaietako egitaraua ikusita bati baino gehiagori sartuko zaio jaiak ailegatu eta etxepeko festa giroan murgiltzeko gogo. Dela musika emanaldiren bat, dela ikuskizunen bat, kirol

norgehiagokaren bat, lehiaketa gastronomikoren bat..., gatxa izango da etxean geratzeko aitzakia bat topatzea. Aurten 100 ekintza baino gehiago batu dituzte Zornotzako jai nagusien egitarauan. Adin tarte guztiei begirako jarduerak antolatzen dituzte herriko kale bazter

bakoitzean. Dena dago prest, azken ukituak baino ez dira falta: zapi urdina lepoan ipintzea, Zorhontzari harrera egitea eta txupinaren eztanda herri osoan entzunaraztea. Aurtengo txupinazoa jaurtitzeko ohorea mugimendu feministak izango du; hau da, Zornotzako Tal-

de Feminista, Martxoak 8 plataforma, Suhaziak mugimenduko neska gazteak eta Akelarre aniztasunaren aldeko plataforma udaletxeko balkoian izango dira jaiari hasiera emango dien mezua lau haizeetara zabaltzen. Pregoia "prestatzen" dabilzala jakinarazi du Amaia Fernández talde feministako kideak. Oraingoz ez daukate dena itxita, baina aurreratu du testuan ez dela "askatasuna" berba faltako. "Guretzat ohore handia da balkoia hartu ahal izatea. Inportantea da jai parekideak eta askeak aldarrikatzea. Txupina jaurtitzeko gure mugimenduak egindako lanaren aitortza lez hartzen dugu. Mezua askotarikoa izango da, perspektiba desberdinak jasoko ditu", zehaztu du Fernandezek.

Jaietako beste protagonistetarikoa bat Iban Ibarretxe izango da. Ibarretxe Udazken txistulari taldeko kidea eta Zubiaur musika eskolako irakaslea da. Baina jai hauetan beste arrazoi bategatik izango da esanguratsu. Hain zuzen ere, aurten bera izendatuko dutelako ohorezko danbor-jotzaile. "Oso eskertuta" dagoela adierazi du. Ainhoa Salterain alkatea ere esker oneko berbak izan ditu bai Ibarretxerentzat eta baita mugimendu feministarentzat ere. Batetik, gogora ekarri du Ibarretxek hamasei urtean Zornotzako danborrada gidatzeko egindako lana. Bestetik, mugimendu feministak erasoei aurre egiteko landuriko protokoloaren balioa azpimarratu du. Autodefentsa feminista, Emakumeen Etxea sustatzeko lana eta eraso homofobo zein transfoboei emandako erantzuna ere nabarmendu ditu.

Jai parte hartzaileak

Jai aurkezpena eguazten goizean egin zuten, udaletxean. Bertan parte hartu zuten Ainhoa Salterain alkatea, Amaia Fernández mugimendu feministako kideak

eta Iban Ibarretxe ohorezko danbor-jotzaile izendatuko dutenak. Salterainek jai "parte hartzaileak eta jendetsuak" izan daitezkeen gura du, eta herriko eragileek egindako lana goraiatu du. Era berean, jai inklusiboak aldarrikatu ditu, ezer ez dadin oztopo izan jaietzeko. Kontzertu nagusietan, elbarrientzat egokituriko plataformak ezarri, eta barraketan soinu bako ordutegiak zehaztuko dituzte. Herriko kuadrillek jaietan izaten duten inplikazioa ere nabarmendu du, eta horren erakusgarri modura ipini ditu marmitako txapelketaren antolakuntza eta kuadrillen kalejira.

Zorhontzaren abestiari koreografia ipini diote aurten. Horregaz flashmob parte hartzailea egingo dute

Flashmoba

Aurtengo egitarauak dakarren berrikuntza bat flashmoba da. Zorhontzaren abestiari koreografia ipini diote, eta dantza hori lantzeko tailerra egingo dute uztailearen 24an, 11:00etan, Zelaieta zentroan. Gero, jaien azken egunean, uztailearen 27an, koreografia hori jendaurrean erakutsiko dute flashmob dantzaldia eginda. 19:30ean izango da, udal plazan.

Erasoen kontra

Jaiak irauten duten bitartean, Puntu Morea ipiniko dute Zelaieta parkean. Indarkeria matxistari loturiko zalantzak argitzeko edo balizko erasoak salatzen gunea izango da. Uztailearen 15ean, 16an, 21ean, 22an, 24an eta 27an egongo da zabalik, 20:00etatik 00:00etara. Horrez gainera, telefono bat ipini dute herritarren eskura: 747 485 126. Azken hau 24 orduz egongo da martxan.



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

ZATOK JAIETAN GURE TXOSNARA!

TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA



946 732 950
zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus

"Autodefentsa feministarako prest gaude. Zeozer gertatzen bada, lehenengo lerroan egongo gara"

Akelarre, Suhaziak neska gazteen taldea, Talde Feminista eta M8 plataforma izango dira, Zornotzako jaiak abiatuko dituen txupinazoa jaurtita, Mugimendu feministaren aldarria udaletxeko balkoitik lau haizetara zabalduko dutenak, uztailaren 15ean



Goian, Maddi Parra, Libe Izagirre, Aitziber Zearreta eta Ane Larrea. Behean, Maider Arizabaleta eta Bego Espiga.

TXUPINAZOA • JONE GUENETXEA

Urte askotako lanaren errekonozimendu legez, Zornotzako Mugimendu Feministak karmenetako txupinazoa jaurtiko du udaletxeko plazaatik, uztailaren 15ean, 20:00etan. Akelarre, Talde Feminista, Martxoak 8 plataforma eta Suhaziak Neska Gazteen Taldea dira herrian mugimendua artikulatzen duten taldeak. Maddi Parra (Akelarre), Bego Espiga (Akelarre), Aitziber Zearreta (Talde Feminista), Ane Larrea (M8 plataforma), Libe Izagirre

(Suhaziak) eta Maider Arizabaleta (Suhaziak) dira ANBOTOren galderi erantzun dietenak.

Aurten Mugimendu Feministak jaurtiko du txupinazoa. Gogotsu zaudete?

Aitziber Ziarreta: Jaietan beti gaude oso gogotsu. Egun horietan plazak eta kaleak hartu izan ditugu, borroka feminista txupinazoan eta jaiegun guztietan zehar presente egon dadin, baina, oraingoan, balakoa ere gurea izango da. Azken

urteetan, emakume asko aritu dira gure taldeetan lanean, ahal dutena edo dakitena egiten, bakoitza bere ekarpena eginez borroka feministaren etapa ezberdinetan, grebak antolatzen, argazkilari lanetan, testuak idazten, itzultzen, pankartak margozten, saretze estrategiak asmatzen, formakuntza lanak egiten, erasoak izan direnean erantzuten, emakumeen arazo ezberdinak artatzen, ekimenetako janariak prestatzen, eskaileretatik igotzen gure aldarriak ozen adierazteko...

Emakume ezberdin askok lan handia egin dute, belaunaldi ezberdinetakoek, jatorri ezberdinetakoek, eta guztiei aitortza bat ere bada pregoi hau.

Pregoa prest daukazue?

A.Z.: Lau taldek partekatzen dugu aurtengo pregoilari lana, Zornotzako Talde Feministak, M8 Plataforma, Suhaziak neska gazteen taldeak eta Akelarre talde transmaribolloak. Gure artean bilerak antolatzen ari gara, presa handiz, pregoia ahalik eta arinen adosteko,

eta nahiz eta oraindino guztion begiradak jasotzen ari garen, pregoirako prest izango dugu, dudarik barik.

Zein mezu zabaldu gura zenukete jaietara begira?

Libe Izagirre: Antolatuta gaudela eta autodefentsa feministarako prest gaudela erakutsi gura genuke. Zeozer gertatzen bada, lehenengo lerroan egongo gara.

Ane Larrea: Plazera, askatasuna eta begirunea egon daitezela. Jaiak denontzat izan daitezela eta ez bakarrik batzuentzat. Pregoian "askatasun" berba ez da faltako. Beldurrak auzoz aldatu behar duelako. Kaleak eta jaiak gureak direlako.

Emakume ezberdin askok lan handia egin dute, belaunaldi ezberdinetakoek, jatorri ezberdinetakoek, eta guztiei aitortza bat ere bada pregoi hau

A. Z.: Jaietan ez goaz gune seguruak sortzera. Herria segurua izan behar da gura duguna gura dugun eran disfrutatzeko.

Lau talde zarete. Zein ibilbide izan duzue zuetariko bakoitzak?

Bego Espiga: Zornotzako talde feminista erreferente izan da militantzian eta iraultzan, bai maila lokalean eta baita Euskal Herrian ere. Eta Akelarre taldea euren elkarlaguntzatik eta militantziaz sortu zen, orain bost bat urte.

Maddi Parra: Gure ustez, beharrezkoa dugu bide komun bat irudikatzea, problematikaren erroa berdina delako. Azken garai honetan, egindako lan guztia kolokan ipintzen ari denez sektore jakin batzuen aldetik, gure esku dago indarrak batzea eta pedagogia feminista hegemonizatzen jarraitzea. Betidanik edan da bertatik, erdutat baitugu gure militantzian eta harrotasun borrokan. Hala ere, orain, gure kasuan, lanketa eta hausnarketa propiorako beharra ikusten dugu.

A.Z.: Talde Feminista aurreko hamarkadan sortu zen. Aurretik talde



Uda honetan
zatoz
ZORNOTZAKO
BARNETEGIra

ZORNOTZAKO
BARNETEGIA

Euskara

BIZI, IKASI, GEROA IRABAZI!

Tel.: 946 308 304 · info@zornotzakobarnetegia · www.zornotzakobarnetegia.eus



Zornotzako Mugimendu Feministako kideak.

feministetan ibilitako emakumeek sortu genuen. Garai batean ez bai batean egon zen eta berrak-tibatu egin genuen. Euskal Herrian euskarazko talde feminista sortu genuen hasieran. Ekintzak eta formakuntzak antolatzen hasi ginen, baita greba deialdiak egiten ere. Baina zerbait anitzagoa sortzeko beharra ikusi genuen, batez ere Martxoaren 8ko planteamendu zabalagoa egin zenean. Hortik sortu zen M8 plataforma sortzeko asmoa. Aniztasun horretatik, adin eta arraza ezberdinetako emakumeak elkartu eta denok batera hausnarketa egin eta borroka bateratu bat egitea izan zen asmoa.

Ane Larrea: Talde Feministak borroka guztiak hartzen zituen bere gain, eta lan apur bat kendu eta jende gehiagorenaga heltzeko sortu zen M8 plataforma, 2018an. Bete da bere helburua, oso talde anitza da eta.

L. I.: Suhaziak 2020an sortu zen, pandemia garaian. Neska gazte

legez ditugun problematikak beste emakumeengandik desberdinak izan daitezke eta gure borroka azaleratu beharko litzatekeela pentsatzen dugu. Egon diren erasoie aurre egiteko, neska gazteen talde bat egotea beharrezkoa zela ikusten genuen. Gainera, entzun genuen beste neska gazteen talde batzuk sortzen ari zirela.

Maider Arizabaleta: Neska gazteen borroketan zentratutako taldea sortzea izan da helburua. Hala ere, beste taldeen aldarrikapenekin bat egiten dugu, baina guretzat espazioa sortu gura genuen.

Zelako elkarlana duzue?

A.L.: Martxoaren 8an eta Azaroaren 25ean denok elkartzen gara. Erreferentziatzako datak dira. San Joan gauean denok elkartzen gara. San Joan gauean denontzat gau seguru bat sortzen ahalegintzen gara.

Jaietan zein ekintzatan parte hartuko duzue?

M.I.: Jaietako zapatu gauean ma-

nifestazio bat egiten da urtero. Mobilizazio hori erabiltzen dugu erakusteko antolatuta gaudela eta ez dugula utziko ezelango erasorik gertatzen.

Urtea hasi zenetik, lau emakume hil dituzte. Zein interpretazio egiten duzue?

A.L.: Oso kezkarria da. Lehenengo eta behin, gizarte lez porrot ikaragarria bizi dugu. Badirudi ez gabiltzala asmatzen edo behar den guztia egiten. Muturreko indarkeria egoera hauen aurrean protokoloek huts egiten dutela ikusteak atsekabetu egiten gaitu eta argi dago oraindino emakumeen biziak ez daukala balio berdina, hil egiten gaituztelako. Eta gizarteak erantzukizuna du horretan. Bestalde, ezin dugu ez ikusiarena egin, diskurtso faxisten zuriketa bat gertatu den neurrian. Emakumeak* eta gure eskubideak jo puntuan daude eta atzerapausoak nabariak dira. Zuriketa minimo bat atzerapauso itzela da, eta oso ondorio kaltega-

rriak ditu. Beraz, horregaz ere adi ibili behar dugu. Faxistei atetxoa apur bat zabaltzea bakarrik desastre itzela da lorturiko eskubideei dagokienez.

A. Z.: Euskal Herrian lau erailketa egon dira, eta Zornotzan ekainaren hasieran zein egoera bizi izan dugun ere nabarmendu gura nuke. Ekainean, lau eguneko tartean, hiru emakume erasoak jasan zituzten. Protokoloek huts egiten dute edo ez dira nahikoa. Neurri batean, egoera batzuk normalizatzen ari gara. Normalizatzen ari gara egunerokoan emakumeek eraso matxistak jasatea, eta horretara ohitzen ari gara. Hau normalizatzen badugu, gureak egin du. Ildo horretatik, oso inportantea da Suhaziak taldeak egiten duen manifestazioa autodefentsarako dei eginez. Garrantzitsua da esatea ez dugula eraso gehiagorik onartuko, hemen denok bat garela, eta edozein emakumeri edo edozein pertsonari bere genero identitatea

dela-eta eraso egiten dioten momentuan aurrean izango gaituztela eta ez dugula pasatzen utziko.

Jaietarako badago protokolorik aurreikusita? Zelan sortu da?

A.Z.: Protokolo bat sortu genuen orain urte dezente eta herriko eragile, tabernari eta txosnagunekin partekatu genuen. Bideo bat atera genuen eta bakoitzak bere ekarpena egin zuen. Iaz, lehenengo, udalagaz bat egin genuen eta bere egin zuen protokolo hori. Iaz, udalak Emagin elkarte kontratatu zuen, jaiegunetan 24 orduko arreta zerbitzua eskaintzeko. Iazko balorazioa izan zen ez zela erasorik gertatu, baina hainbat dei jaso zen. Gainera, iaz alarma egoera batean hasi genuen uda, eraso homofobo, matxista eta faxistak gertatu zirelako. Familiak izan ziren, batez ere, zerbitzua erabili zutenak. Aurten, udalak erabaki du zerbitzu hori uda osoan zehar egotea martxan. Jaiegun zehatzetan puntu moreetan egongo dira.



IMQ Igurco

Adinekoentzako zaintza eta arreta espezializatua

IMQ Igurco Orue

94 630 05 50

San Miguel de Duda z/g

IMQ Igurco Azkuna

94 630 99 55

José Antonio Aguirre 2

Olatz Salvador, Kai Nakai, Zetak eta Chimo Bayo, besteak beste, Zornotzako jaietan

Zornotzako jaiak uztailaren 15etik 27ra ospatuko dituzte. Karmen eta Santa Ana jaietako kontzerturik gehienak Zubiondo plazan eta Zelaieta parkean izango dira

MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zornotzako jaiak uztailaren 15etik 27ra ospatuko dira eta bertan musika eskaintza zabala egongo da, gustu guztietarako musika, lehenengo egunetik azken egunera arte. Musika eskaintza horri Zetak talde nafarrak emango dio hasiera, uztailaren 15ean, 22:30ean, Zubiondo plazan. Horren ondoren, Akerbeltz erromeria taldea egongo da. Bestalde, Zelaieta parkean En Esenzia orkestrak joko du.

Karmen egunean ere egongo dira kontzertuak Zelaieta parkean eta Zubiondo plazan. Zelaieta parkean Delirium Tremens taldeak emango du kontzertua, 22:30ean, eta Zubiondo plazan Formula V. taldea arituko da, 23:00etan.

Uztailaren 21ean, musikagaz emango diote hasiera egunari. 13:00etan, Zornotzako gazteek antolatuta, gazteen kalejira egingo dute herritik zehar. 18:00etan, Distopia elektrotzarangak kaleko giroa alaituko du, eta 21:30ean txistularien XXIII. kontzertua egongo da. Kontzertu honetarako, Udazken txistulari taldeak Eñaut Elorrieta musikaria gonbidatu du. La Furia eta Rebeca Laneren kontzertuek emango diote amaiera egunari, Zubiondo plazan.

Uztailaren 22an, 17:30ean, Xaiborren eskutik izango da ikuskizuna, eta Mariachi Imperiallek herriko kaleak girotuko dituzte. 18:00etan eta 20:00etan kara-

ke ibiltaria egingo dute. 22:30ean Benidorm orkestra egongo da Zelaieta parkean, eta 23:00etan Show party DJs, Zubiondo plazan.

Uztailaren 23an Gaztedi fanfarrak arituko da, Zezilia Gallartza-goitiatik Sabino Aranaraino. Eta, 22:30ean, Kalakan taldeak kontzertua emango du Zubiondon.

Txistularien XXIII. kontzerturako, Udazken txistulari taldeak Eñaut Elorrieta gonbidatu du

Uztailaren 24an, astelehena, ETS eta Zirkinik Bez erromeria egongo dira Zubiondo plazan. Eta, Puro Relajo nafarren eskutik, abesti mexikarrak entzungai egongo dira Zelaietan. Uztailaren 25ean Zornotzako Musika Bandaren kontzertua egongo da, eta 00:00etan Kai Nakairen kontzertua.

Jaiei amaiera emateko, Olatz Salvador, Burrumba elektrotzaranga, Trikizio taldearen erromeria eta 1990eko hamarkadako jaiak egongo dira, uztailaren 26an eta 27an. Salvadorren kontzertua uztailaren 26an izango da, 22:30ean. 90eko hamarkadako jaiak uztailaren 27an izango da, 22:30ean, eta Obk, Rebeca, Chimo Bayo eta Fernandisco arituko dira bertan.



Olatz Salvador.



Zetak.



Kai Nakai.

 **ekin**
thinking together

BROTXAKETAREN ETA
IJEZKETAREN ALORREKO
KIDE GLOBALA

www.ekin.es



Okm: *batzen gaituen distantzia*







Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide



ITZALAK



Beheko itzal hauetatik zein dagokio goiko irudiari?



LOTU ITZAZU

Lotu animalia bakoitza bere azalagaz.

Zein animalia dago lekuz kanpo?



BIKIAK

Topatu maskara afrikar
hauen guztien bikiak.



'Izarren Hartza'

ANTZERKIA BERRIZ :: Uztailak 13

Natura eta bizitza gorai patzen dituen familia osoarentzako ikuskizuna

Irdin hartz-kume emea baka- rrik eta abandonatuta dago bizitzako bidean. Horixe du protagonista Teatro Panta Rhei konpainiaren *Izarren Hartza* antzerki ikuskizunak. Malen- koniatik ihesi dabil Irdin, be- re izaera eta balioa miatuz, "munduan leku bat" bilatu gu- ran, zoriotsu bizitzeko aukera emango dion familia bat eta etxe bat bilatu guran, obraren sinopsioak dioen moduan.

Mehatxu batek erne ipiniko ditu basoko animaliak: Otso Zuri bakartiak bere nahia inposatuko du, gutxien espero den tokian. Irdin hartz-kumeak bizitzara, maitasunera eta bere barnerantz joateko hartu duen erabaki sen- doak baino ez dio erakutsiko bere amets guztiak bizi diren men- diaren bihotzera heltzeko bide- zidorra. Berrizjauregi lorategian taularatuko dute ikuskizuna, 17:00etan.

Uztailaren 7an

ABADIÑO sanmartinak
Donien Atxa botatzea,
20:00etan, Gaztelua auzoan.
Ondoren, **berakatz zopa**.

ABADIÑO sankristobalak
Donien Atxaren
bila, 18:00etan,
Mendiolako Errekaxo elkartetik.
Berakatz zopa, 21:00etan,
bertaratzen direnentzat.
Kontzertua: Lukiek + Liher,
22:30etan.

DURANGO ikuskizuna
'¿Qué sueñan los principes?'
(Tabula Rasa eta Mariano
Estudillo), 20:00etan, Benita
Uribarrena parkean.

ELORRIO ikuskizuna
'Circle of fire' (Deabru
Beltzak), 22:30ean, plazan.

GARAI bakarrizketa
Markel Sanchez 'Torrai'
+ Joana Ocaña 'Nona',
19:00etan, Elizabarrin. Trumoitte
kultur elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA kirola
Boxeo Eguna, 20:00etan,
Ixebekoa kiroldegian. Ate
irekiera, 19:00etan.

ZORNOTZA jaia
Alexandru Ionita gaztearen
aldeko jai solidarioa,
14:00etan hasita, Zubiondon.

Uztailaren 7tik 16ra bitartean

ELORRIO zirkoa
Gure Zirkua, Ganondo
parkean. Sarrera eskuragarri
Gure Zirkuaren webgunean edo
leihatilan.

Uztailaren 8an

ABADIÑO sankristobalak
Artisau eta ekoizleen azoka,
11:00etan, Mendiola auzoan.
'Azkorbe'-ri auzo omenaldia:
Alluitz dantza taldea eta
lagunak, 13:30ean.
Bazkari autogestionatua,
Onintza Enbeita eta
Eneko Abasolo 'Abarkas'
bertsolariek girotuta,
14:00etan.
Tortilla txapelketa, 19:00etan.
Tortillarik onena eta txarrena
sarituko dituzte.
Luhartz taldea, 22:00etan.

ELORRIO musika
Neomak, 22:30ean, plazan.

ELORRIO azoka
Artisau Azoka, 18:00etatik
23:00etara, Arbola parkean. Eixu
artisau elkarteak antolatuta.

Uztailaren 9an

ABADIÑO sankristobalak
Herri kirolak: Zelaitarrak +

Abadiño Sokatira taldea,
18:00etan, Mendiola auzoan.
Parrillada, KSKA selektorak
girotuta, 20:00etan.

DURANGO antzerkia
'#Sueña' (Mireia Miracle
konpainia), 19:00etan,
Otamotzena parkean.

ELORRIO pailazoak
'Urteak bete, abenturak
bizi' (Pirritx, Porrotx eta
Marimotots), 19:00etan,
plazan.

Uztailaren 10ean

ABADIÑO sankristobalak
Meza, 11:00etan, Mendiolan.
Ondoren, **gazta, ogia eta**
ardoa.
Bolo eta ugasio txapelketa,
13:00etan.
Errifen zozketa eta Donien
Atxa botatzea, 14:00etan.

Uztailaren 13an

ABADIÑO kontzertua
The Liingles taldea, 19:30ean,
Amaraun Arte Fabrikan.

DURANGO musika
Olinda taldea, 20:00etan,
Platerueneko terrazan.

ELORRIO bakarrizketak
Markel Sánchez eta Maite
López, 21:00etan, Portalekuan.

Uztailaren 14an

ELORRIO musika
Antonio Lizana, 20:00etan,
Lariz jauregian.

ZALDIBAR santamarinak
Jaiak iragartzeko txapligua
eta Donien Atxa altxatzea,
19:00etan, Goierri auzoan.
Sardina jana, 20:00etan.
Eingo taldea, 20:30ean.
Bolo jokoa, 22:30ean.
VII. Rock Jaialdia: Astoturfer
+ Ezta Ilen + Star Drinkers,
23:00etan.

Uztailaren 15ean

DURANGO musika
KOBR3 (Cia Zirkozaurre)
konpainia, 22:00etan, Aurora
Abasolo parkean.

ELORRIO musika
Verde Prato, 20:00etan, Lariz
Jauregian.

ZALDIBAR santamarinak
Bakailao eta paella
txapelketa, 11:30ean, Goierri
auzoan.
Bizkaiko Bolo Txapelketa,
12:30ean.
Bermut alaia, 13:00etatik
15:00etara.
Mus eta briska txapelketak,
16:30ean.
'Pipo Star' umeentzako
antzerkia, 17:30ean. Ondoren,
txokolatea.
Luhartz taldea, 22:30ean.
Bolo txapelketa, 23:00etan.

Zine- ma

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Vacaciones de verano**
barikua 7: 18:30/21:00
zapateria 8: 17:00/ 19:15 / 21:30
domeka 9: 17:30/20:00
astelehena 10: 18:0 / 20:15
martitzena 11: 18:00 / 20:15
eguztzena 12: 19:00

• **Te estoy amando locamen-
te**
barikua 7: 18:30 / 21:00
zapateria 8: 19:15 / 21:30
domeka 9: 20:00
astelehena 10: 18:00 / 20:15
martitzena 11: 18:00 / 20:15
eguztzena 12: 19:00

• **Indiana Jones y el dial del
destino**
barikua 7: 21:00
zapateria 8: 18:30 / 21:30
domeka 9: 17:00 / 19:00
astelehena 10: 19:30
martitzena 11: 19:30
eguztzena 12: 19:00

• **Ruby. Aventuras de una
kraken adolescente**
barikua 7: 18:30
zapateria 8: 16:30 / 17:15
domeka 9: 17:00
astelehena 10: 17:30
martitzena 11: 17:30

Zaldibarko jaiak 2023

Uztailak 7, barikua

08:30 Familientzako mendi irteera udaletxeko plazan hasita. Amaitzean jatekoa egongo da eskoletako pilotalekuan.

12:30 Herri kirolak Zaldua plazan: aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.

17:00-18:00 Apar festa udaletxeko plazan.

19:30 Matraka elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.

23:00 Dantzaldia DJ Josemarigaz Euskal Herria etorbidean.

23:00 Kontzertuak txosnagunean: HOFÉ + BENGÓ + SARA GOXUA & LA NANI.

Uztailak 8, zapatua

10:00-13:00 Arku-tiroa ume eta helduentzat Olazarko galerian, Zaldibar Arku Taldeak antolatuta.

12:00 Tortilla txapelketa eskolako aterpean, Zaldua Saskibaloitza Taldeak antolatuta.

13:00-13:30 Zaldibar Arku taldeko arkularien erakustaldia Olazarko galerian, Zaldibar Arku Taldeak antolatuta.

14:30 Herri bazkaria txosnagunean.

16:00 3X3 saskibaloitza txapelketa kiroldegian, Zaldua Saskibaloitza Taldeak antolatuta.

17:00 Olinpiadak txosnagunean.

19:00 Afari-merienda Olea kalean, solomoa (1 €) eta sardinak (1 €).

19:00 Elektrokela elektrotzaranga, txosnagunetik hasita.

21:00 DJ Lander Luque Olea kalean.

22:30 URI & K-RAS txosnagunean.

00:00 BERANDUEGI taldeagaz erromeria txosnagunean.

Uztailak 9, domeka

10:30 BIZKAIKO ITZULIA, Bizkaiko txirritulakari eskolen arteko proba: hasiberriak, eta kimu eta haur kategoriakoak. Hasiera Autonomia kalean.

11:00-13:00 eta **16:00-19:00. Umeen jolas parkea** eskolako patioan (euria eginez gero kiroldegian).

11:00 Zaldibarko koralk mezan abestuko du San Andres elizan.

12:15 Euskal dantzak Zaldua plazan.

19:00 Bertso saioa, Zaldua plazan: **Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Joanes Illarregi. Gai-jartzaile: Ainhoa Urien.**

20:30 'Oh pera' zirku-ikuskizuna, udaletxe plazan (euria eginez gero Olazar pilotalekuan).

23:00 Su artifizialak.

Uztailak 15, zapatua

07:00 Zaldibarko XLIV. mendi martxa, Zaldua plazan hasita. Amaitu: udaletxeko plazan.

Uztailak 18, martitzena

18:30 Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa liburutegi zaharrean.



Zentzudun bizi,
blogean ikasi

Ekonomia eraldatzailea • Ekonomia feminista • Elikadura burujabetza • Etxea • Euskara
Gizarte eraldaketa • Gorputzaren burujabetza • Iraunkortasuna • Konmari metodoa
Kontsumo alternatibak • Zero zabor... **EUSKARAZ!**



“Olindak transmititzen dituen hizkuntza eta erregistrora ekarri ditugu abestiak”

Joan zen udan 'Sol Azeitonas e Vinho' diskoa ondu ostean, Olinda talde durangarrak Durangon joko du, uztailaren 13an, Platerueneko terrazan

MUSIKA • IGOR GALARZA

Abesti propioak biltzen dituen lehenengo diskoa ondu berri duen arren, Olinda taldeak hamarkada bat darama nazioarteko musika genero ugari zabaltzen. Amaia Jaio Apellanizek (Durango, 1965) txeloa jotzen du, Eider Gallastegik kontrabaxua, Juanfer Gagok gitarra eta Eva Acerok abestu egiten du. Uztailaren

13an, Durangoko Plateruenaren terrazan taularatuko dute lan berria, 20:00etan. Jaiogaz berba egin du ANBOTOK.

Prest Durangoko kontzerturako?

Bai. Daramatzagun hamar urteotan, astero geratzeko martxa hori mantentzea lortu dugu eta disko berriko kantak zein lehenagotik

geneukan errepertorioa lantzen etorri gara.

Zelan sortu zen Olinda?

Guk beti diogu Itziar Eskerrak batu gintuela. Itziar, tamalez, zendu egin zen. Omenaldian laurok parte hartu genuen, eta han batu ginen. Gure lehenengo diskoa (Reserva, 2014) bere omenez grabatu genuen. Azkenengo diskoan, urte-

tan galdu ditugunak omendu gura izan ditugu.

Hamar urte daramatzazue jotzen. Zelan etorri da zuek konposaturiko abestiak disko batean txertatzea?

Nik lehenagotik ere konposatzen nuen musika; beti gustatu izan zait. Baina pandemia garain esperimentazio asko egin nuen, eta 'Danzas Sin Fronteras' ekimenak ateratako poema liburu batean Acúname izeneko poema hartu eta musikatu egin nuen. Gero, Evak bereak zein beste idazle batzuen poemak musikatzeko proposamena bota zuen. Ni ere animatu nintzen, eta neure amari eta mundu guztiko amei buruz idatzitako Amaren laztana abestia idatzi nuen. Diskoa jolastearen parekoa izan da; ez genuen bertsoekin osatu gura bakarrik.

Baina lan hau ez da musikariena bakarrik. Produkzioan, David Acerok Olindaren nortasuna ezin hobeto azaleratzen lagundu digu; Nuria Hernandezen maketa-zioak eta Zihara Merinoren ilustrazioek musikaz gaindi dauden arteak ekarri dituzte diskoan.

Konposizioak Olindaren nortasuna eraman dituzue ala Olinda musika genero desberdinetara zabaldu da?

Konposizioak estilora. Laurok elkartzean, bakoitzak bere ekarpena egin du. Olindak transmititzen dituen hizkuntza eta erregistrora ekarri ditugu abestiak. Hori bai, ahaztu barik gizarteagazko ditugun ardurak eta konpromisoak; feminismoa eta elkartasuna, adibidez.

David Acerok sarrera bat egin dio abesti bakoitzari, eta zerikusia duten eszenak irudikatu ditzakegu, batez ere naturan barrena

Taldean ez duzue perkusionistarik, baina diskoan entzuten dugu.

Grabazioan Ander Zulaikak lagundu zigun, eta kontzertuetan Naldo Gomesek laguntzen digu. Naldo musikari profesionala da eta, taldekoa ez den arren, taldearen parte da. Noizean behin gugaz jotzeko ideia dugu.

Zer topatuko du entzuleak diskoan?

Evaren nebak (David) sarrera bat ipini dio abesti bakoitzari, eta abestiagaz zerikusia duen eszena bat irudikatu dezakegu, batez ere naturan barrena. Diskoan, entzuleak samba edo bossa nova estiloa entzungo ditu gehien. Baina badugu tangotik eta salsatik ere.

Hogei urteren ondoren, Durangoko Arte eta Historia museoak Javier Santurtunen lanak erakutsiko ditu berriro



Javier Santurtún (erdian), Garazi Arrizabalagaz eta udal ordezkariekin.

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Emoiguzu gaur erakusketa zabaldu dute Durangoko Arte eta Historia museoan. Javier Santurtún artista barakaldarraren 30 lan egongo dira bertan, irailaren 3ra arte. Lan guztiak erakusketarako berariaz prestatu ditu Santurtunek. "2019aren ondoren, erronka berri bat ipini gura nion neure buruari; gizakia- ren irudia landu gura nuen, ordura arte ez nuen landu eta", azaldu du aurkezpenean. Artista bizkaitarra pozik agertu da bere lanak berriro Durangon erakutsi dituelako. "Itze-

la da hogei urteren ondoren atzera ere Durangon erakutsi ahal izatea nire lanak; normalean, nire piezak kalean egon dira, baina Arte eta Historia museoan leku aproposa da hauek erakusteko, nire ustetan", gaineratu du. Benita Uribarrena parkean dagoen Los Cubos pieza ere berea da, adibidez.

Santurtún Arte Ederretan lizentziatu zen, 1985ean, EHUn, eta ordutik, bere lanek "izaera industrialari" eutsi diote, Garazi Arrizabalaga museoan zuzendariaren berbetan. "Bere lanez disfrutatze-

modurik egokiena erakusketa beragaz batera bisitatzea da", esan du Arrizabalagak. Egueneko ate irekieran egin zuen bisita gidatua; ez dute zehaztu aurrerago beste bisita gidaturik egingo duten.

Lan guztiak erakusketarako berariaz prestatu ditu Santurtunek

Lehenengo prentsaurrekoa

Udal gobernu berria osatu denetik, lehenengo prentsa agerraldia izan da hau. Mireia Elkoroiribe alkateak esan du Jon Sergio Atxotegi izango dela Astarloa Kulturgintzako ordezkari berria.

Gaurtik eta uztailearen 29ra, Musikairek kultur ekitaldiz beteko du Elorrio, beste behin ere; Deabru Beltzakek piztuko du sua

Hamalau emanaldi egingo dituzte uztailearen 29ra bitartean, eta, besteak beste, Neomak, Ruper Ordorika edo dantza garaikide ikuskizunak egongo dira



Neomak. ANTONIO KAJOI

MUSIKA • A. M.

Gaur hasiko dute Musikaire zirkloaren edizio berria Elorrioren. Egitasmo errotua da Musikaire Elorrioren, eta erreferentziazkoa ere bilakatu da urteekin; aurtengoa 23. edizioa du. Ganondo parkean barik (Gure Zirkuaren), berriro ere ohiko gune bi berres-

kuratuko ditu jaialdiak: plaza eta Lariz jauregia. Lekeitiko Deabru Beltzak konpainiak *Circle of fire* su ikuskizuna egingo du plazan, 22:30ean hasita. Ikuskizun honek sua, piroteknia eta musika uztartzen ditu eta argazki ikusgarria utziko du Elorrioko iluntzean.

Zapatuan, Neomak taldearen txanda izango da. Zazpikote gipuzkoarra jo eta su dabil taula gainean iaz kaleratu zuen *Neomak* diskoa aurkeztzen. Ekainean, adibidez, Donibane Lohizunen, Irunen, Teruelen eta Lasarten eman zituzten kontzertuak. Horrez gainera, mundu osoaren erakusleho den

Frantziako Tourraren irekiera ekitaldian ere jo zuten kontzertua. Trikiti txapelketetan eta Sorginak proiektuan elkarregaz aritu ostean, elektronikagaz esperimentatzeko helburuagaz ekin zioten 2019an Neomak proiektuari.

Ohikoa den moduan, musikaz gainera beste diziplina batzuk

ere egongo dira ikusgai Elorrioko Musikairen. Domekan, hilak 9, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Urteak bete, abenturak bizi* ikuskizuna egingo dute, 19:00etan, plazan. Pailazo taldeak 35 urte bete ditu errepidean, eta hori ospatzeko muntatu dute ikuskizun hau. "Urteak betetzea garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa abenturak bizitzea! Eta horixe izango da gure ospakizuna: beste abentura bat bizitzea", diote. Bestalde, datozen asteetan Ruper Ordorika, Verde Prato, Antonio Lizana, dantza garaikidea ikuskizuna (*Qabalumen La medida que nos ha de dividir*, LaRutanen *Out of blue*, Wakoren *Hellouses y goodbyeses* eta Sekairen *Through natura* obregaz) eta O sister taldeen emanaldiak egongo dira.

Udalaren ahalegina

Musikaireren edizio berri honen aurkezpenean, Elorrioko Udalak bere ekarpena %30 igo behar izan zuela salatu zuen Julene Lazkano alkateak. "Kulturaren aldeko konpromisoagaitik, eta Musikaireren kalitate mailari eusteko, Elorrioko Udalaren diru partida handitu behar izan dugu, Aldunditik geroago eta diru gutxiago jasotzen dugulako", azaldu zuen. Guztira, 90.000 euro inguruko aurrekontua du kultur egitasmoak.

Gai librean

Amorruz

Marea horiaren ez tandarekin hasi ditugu Zaldibarren jaiak. Egun hauetako auzolana izugarria izan da: ekintzen antolaketa, herri apainketa, txosnen muntaia, kamiseta saltzea, musika zerrrendak prestatzea eta, noski, lanketa feminista.

Txupina jaurtitzera jantzi da herria, jantzi dira udala eta tabernak morez, erasoan aurkako aldarriez hain zuzen. Pegatina eta txapa moreak non-nahi. Nor ez da egun erasoan aurka eta aldarri feminista baten edo besteren parte egin?

Urtez urte gauzatu, sendotu eta landu dugu erasoan aurkako protokoloa. Herriko taberna eta txoko desberdinetan banatu dugu eta ahal den neurrian oinarriak finkatzen saiatu gara. Urterik urte beldurrari aurre egiten, urterik urte



Ainhoa Zabarte Narbaiza Behargina

Pegatina eta txapa moreak non-nahi. Nor ez da egun erasoan aurka eta aldarri feminista baten edo besteren parte egin?

ahalduntzen lan egin eta urtero izaten dira erasoak. Zaldibarren, Durangaldean edota Euskal Herrian. Amaitzen ez den istorioa, erasotzaile berriak sortzen jarraitzen duen gizartea. Herentzia gaitza.

Aurtengo lanketa ezberdina izan da eta ez zentzu onean. Erasotzaile bat tartean. Akaso jaietan ez du eraso egingo, baina aurretik egin du, behin baino gehiagotan. Egoera honetan justizia patriarkalak hartu ez dituen neurriak tarteko jai hauei begirako neurri zorrotzagoak hartu behar izan dira. Justizia

honek mesede egin dio eta hala erasotzaile bat gure espazioetan egoteko aukera zabaldu da. Amorruz betetzen nau egoerak. Erasoa jasan duena al da bere espazio naturaletatik alde egitera behartuta egon behar duena?

Zenbat eta babes neurri gehiago pentsatu, orduan eta gehiago haserretzen naiz. Erasoa ez dira kasualitatez gertatzen. Erasotzaileak daude eraso bakoitzaren aurrean. Eta sarri konplizeak alboan. Erasotzaileek ez dute atsedetik hartzen eta jaietan are erasotzaileago bihurtzen dira. Jai hauetan aske gozatu nahi dugu eta denon ardura da eroso eta aske egongo garen espazioak sortzea, taberna, txosnagune, gaztetxe, plaza eta kale bazter guztietan. Beraz, erasoan bat ikusten baduzu edo norbait deseroso dagoela badakizu, hartu kargu eta ez izan konplize. Eta egoten ez badakizu, ez etorri!



Eneritz Alkorta Lejarreta
Mendi korrikalaria
BERRIZ | 1983

FESTAK.COM

"G2H proban beroak arduratzen nau apur bat; 32 gradu iragarri dituzte biharko"

Eneritz Alkortak iaz ezin izan zuen Goierriko 2 Haundiak proba amaitu. Aurten zorrak kitatu gura ditu

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
Bere kirol ibilbidean, Eneritz Alkortak bigarren parte hartuko du Goierriko 2 Haundiak [G2H] lasterketan, gaur gauean hasita. 88 kilometrotan 6.000 metroko desnibel positiboa gainditu beharko du helmuga lehenengoz zeharkatzeko. Izan ere, iazko abentura 20. kilometroan amaitu zen. Atxondon bizi den berriztarrak erretiratu egin behar izan zuen, belauneko lesio bategatik.

Zorrak kitatzera zoaz?

Bai. Oso burugogorra naiz eta oso arraroa da ni lasterketa batean erretiratzea. Iazkoa barruan geratu zitzaidan, berriro ahalegintzea nerabilen buruan bueltaka, eta hemen nago.

Zelan joan da prestaketa?

Ondo joan da. Euskal Herriko Ultra Trailen Koparen barruan, Enkar-

terri Extrem Trailean [62 km] eta Domusa Teknik Trailean [65 km] parte hartu nuen. Oso gustura aritu nintzen proba bietan. Ondo prestatuta noala uste dut eta proba amaitzea da helburua.

Belauneko lesioa ahaztuta dago?

Berriro minekin nabil eta iazko arazo bera da. Azken hiru hileetan entrenamendu asko daramatzat eta belauneko karga dela diote medikuek. Hamabost egunez deskantsua eman diot belaunari eta ondo etorri zaio, baina badakit min emango didana eta beldur apur bategaz noa.

Sufritzeko prest zaude?

Tira, Ibuprofeno bategaz mina kentzea espero dut (barrez).

Inoiz parte hartu duzun probarik luzeena da?

Ez, orain urte bi Hiru Haundiak proba egin nuen. Azken 20 kilome-

troetan sufritu arren gustura ibili nintzen eta amaitu nuen. Aurten berriro noa.

Hiru Haundiak ala G2H. Zein da gogorragoa?

Goierriko 2 Haundiak gogorragoa da. Desnibel aldetik ez dute zeri-kusirik. Hiru Haundiak, 100 kilometroko proba bada ere, oso egingarria da; pista asko dago eta ez da oso teknikoa. Baina G2H askoz ere gogorragoa eta teknikoagoa da. Txindokiko jaitsiera, adibidez, oso teknikoa da. Orokorrean, erronka handiagoa da.

G2H gaur gauean hasiko da, 23:00etan. Ezohiko ordura egokitzeak lana eskatzen du?

Goizago bazkaldu behar da, goizago afaldu, ondo deskantsatu... Apur bat arraroa egiten da. Niri goizean goiz esnatzea eta ohiko erritmoa hartzea gustatzen zait.



Eneritz Alkorta mendi lasterketa batean. FESTAK.COM

Baina, tira, ez dut entrenamendu berezirik egin hori dela eta. Egun horretan badakit nora noan eta mentalizatuta noa.

Bestelakoan, lasterketako zerbaitek bereziki kezkatzen zaitu?

Beroak arduratzen nau gehien, zapaturako 32 gradu iragarri dituzte eta. Berorik handiena Aizkorriko igoeran eta horren ondoren tokatuko zaidala kalkulatu dut. Ikusi egin behar erritmoa zein den. Proba 17:00etarako amaitzea itxaroten dut. 17 ordu da buruan darabildan denbora.

Indar fisikoak besteko garrantzia du buruko indarrak?

Bai, erdi eta erdi esango nuke, %50 bakoitzak. Alderdi mentala oso garrantzitsua da. Sarritan, bidean beste norbaitegaz joateak lagundu egiten dizu. Begira, Enkarterri Extrem Traileko lasterketaren erdia baino gehiago frantziar bategaz egin nuen. Nik ez dakit frantsesez, eta berak ez zekien gaztelaniaz. Baina elkarregaz joateak lagundu egin zigun. Momentu batean jausi egin nintzen eta itxaron egin zidan. Hurrengo, berak ezin zuen motxila zabaldu eta lagundu egin nion. Elkarregaz sartu ginen helmugara.

Beste une batzuetan, behar bada, gurago duzu bakarrik joan. Nik, badaezpada, aurikularrak eramaten ditut beti motxilan, musika entzuteko, baina, egia esan, oraindik sekula ere ez ditut erabili proba luze batean.

Aurikularrez gainera, zer ez da sekula falta Eneritz Alkortaren motxilan?

Gauza batzuk derrigorrezkoak dira: galtza elastikoak, anoraka, manta termikoa, frontal bi, txilibitua, atzeko argi gorria, benda, geolokalizatzailea, ura eta mugikorra. Hortik aparte, aurikularrak eta elikagaiak eramaten ditut, gelak eta abar. Elikagaiena entrenatu beharra dago. Geletan, adibidez: zapoak, gel motak... lelokeria bat dirudi, baina gorputza horietara ohitu behar duzu entrenamenduetan, tripei kalterik ez eragiteko. Lasterketetan ez da gel berririk

probatu behar. Oso arraroa da anoa guneetan normalean hartzen ez duzun gel bat hartzea.

G2H Ehunmilak probaren neba edo arreba txikia dela esan daiteke. Aurten helburua betetzen baduzu, Ehunmilak-en bila joango zara?

Bai. Horixe da nire azken jomuga. Urriari Hiru Haundiak gustura amaitzen badut, hurrengo erronka Ehunmilak izango da. Baina oraindik ez nago mentalizatuta. Egin gura dut, baina etorriko da etorri beharrekoa.

Burugogorra zarela aipatu duzu. Zeintzuk dira burugogorra izatearen abantailak eta desabantailak?

Abantaila bat da nekeak jota egon arren, gorputzari buelta eman eta aurrera jarraitzeko indarra aurkitzen duzula. Desabantaila, norbere mugak sarritan aurkitzen direla.

Durango Kirol Taldeagaz ibiltzen zara krosetako probetan. Lasterketa luzeagoetarako prestaketan laguntzen dizu?

Ez bereziki. Hiru Haundiak probaren segidan hasten da kros denboraldia, eta aldaketa latza da. Taldekako probetan puntuak lortzeko, veteranoak behar zituzten. Taldera batzea proposatu zidaten eta horregaitik hasi nintzen Durango Kirol Taldean. Oso ondo pasatzen dut taldekideekin. Batzuetan atletismoan ere aritzen naiz. Orain aste batzuk, 800 metroko proba batean parte hartzea egokitu zitzaidan. Durangoko atletismo pistan izan zen, klubaren arteko Bizkaiko txapelketan.

Eta zelan joan zen?

Ba, oso ondo irten zitzaidan. Minutu bi eta 40 segundoan egin nuen. Erlojuari begiratu ere ez nion egin; topera irten eta amaitu arte! Harritu egin nintzen denboragaz. Beste behin, 400 metroko errelebo proba batean parte hartu nuen.

Beharbada, lasterketa luzeak barik laburrak dira zureak, Eneritz!

Ez, ez (barrez), ni oso diesela naiz. Hobeto luzeetan. Baina taldeari laguntzeko aukera badut, bada, gustura aritzen naiz.

Urteetako lanaren ondoren, Larrasoloeta taldeak xake eskola berreskuratu eta egonkortu du, eta itxaropentsu begiratzen dio etorkizunari

"Harrobia da klub baten bihotza". Premisa horretatik abiatu, eta lau urtean bizia eman diote desagertuta zegoen eskolari. Gaur egun 13 ume dituzte xake eskolan



Larrasoloeta xake eskolako umeak.

loeta taldean, eta harribitxiak lez zaintzen zituzten. "Guretzat oso garrantzitsuak ziren eta oso pozik egon zitezten ahalegintzen ginen beti", adierazi du Varasek. Umetik umera aldea zegoen adinean, eta sei urteko bat hamaika urteko baten kontra jokatzen ipintzeak "beldurra" ematen zien. "Ez genekien zelan konponduko ziren elkarregaz", nabarmendu du Varasek. Baina, ezustean, esperientzia "oso ondo" irten zitzaion. "Nagusiek gazteenei erakusten zieten eta gazteenek

Hiru umegaz hasi ziren eta mimatu egiten zituzten. "Oso pozik egon zitezten ahalegintzen ginen beti"

erreferentetzat hartzen zituzten nagusiak. Gainera, lagun onak egiten ziren. Biziraupen hutsez martxan ipinitako sistema oso eraginkorra izan zen", dio Varasek.

Ahalegin horrek guztiak bere fruituak eman ditu eta gaur egun 13 ume dituzte. "Zelan hasi ginen eta non gauden... Ur gaineko bitsetan gaude, sinetsi ezinda", dio Varasek. Eta probatu gura duten denentzat atea zabalik dutela gogoratu du, ajedrez.durango@gmail.com helbide elektronikoaren eta euren webgunearen bitartez.

XAKEA • J.D.

Kirol minoritarioen bizimodua nekeza izaten da. Lan handia egin behar da pauso txikiak emateko. Horren jakitun zen Durangoko Larrasoloeta xake taldeko Maitane Varas hutsetik xake eskola sortzeko erronkari heldu zionean, baina

beharrezko ikusten zuen. Harrezkero lau urte joan dira, 13 gaztetxo dituzte eta itxaropentsu begiratzen diote etorkizunari.

Maitane Varasek xake taldeko presidente kargua hartu zuenean, Larrasoloetak urte batzuk zeramatzan eskolarik barik. Argi zuen

eskola berreskuratzea nahitaezkoa zela. "Klub baten bihotza harrobia da. Funtsezkoa da. Ni neu Larrasoloetako eskolan hezi nintzen". Ideia hori buruan hasi zen lanean. Lehenengo lana, taldea ezagutaraztea: kartelak itsatsita, gurasoekin aurrez aurre egonda... "Oso lan

gogorra izan zen, jendeak ez zekielako existitzen ginela ere", gogoratu du Varasek. Umeak batzeko beste bide bat ikastetxerik ikastetxe xake klaseak ematea zen. Horixe egiten zuen eta egiten jarraitzen du Larrasoloetako Miguel Angel Linacerok. Hiru umegaz hasi ziren Larraso-

Jokaldia

Hamarkada gorria, Galesen nagusitasuna

Kirolean talde batzuk oroimenean gordeta ditugu, zelaian erakutsitako jarreragatik, eskainitako jokoagatik edo bide berriak urratzeagatik. Errugbiaren historian hainbat izan dira nabarmendu diren taldeak baina gaurkoan 50 urte atzera eginez, 70eko hamarkadaren inguruan *Dragoiaren XVak* erakutsitako nagusitasuna zehazten ahaleginduko naiz. 1969-1979 tartea *Hamarkada Gorritzat* ezagutzen da errugbian, sasoi horretan eta aditu askoren ustez, historiako talderik onenak jokatu zuelako.

Hamarkada horretan talde gorriak bi etapa bizi izan zituen, lehenengoa 1969-72 artekoa, eta 1975-79 artekoa bigarrena. Tarte horretan V Nazioetako txapelketa 9 aldiz lortu zuten, horietatik hirutan Grand Slama eskuratu zuten



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

Tarte horretan V Nazioetako txapelketa 9 aldiz lortu zuten eta horietatik hirutan Grand Slama eskuratu zuten

Talde honen nagusitasuna 1971. urtean zabaldu zen. Ordura arte ez zuten inoiz lortu All Blacks menderatzea

partida guztiak irabaziz, eta horri sei Koroa Hirukoitza gehitu behar zaizkio.

Diotenez, talde mitikoaren hasiera 1967ko azaroaren 11n gertatu zen. Egundorretan, lehen aldiz, Gareth Owen Edwardsek eta Barry Johnnek elkarrekin jokatu zuten Zeelanda Berriaren aurka

lehiatzeko. Edwardsek abiadura eta ausardia hartzen zituen; Johnnek, aldiz, adimena eta harropuzkeria. Historiako uztartze-erdilari eta joko zabaltzaile onenak beraiek izan dira, askoren ustez.

Talde honen nagusitasuna 1971. urtean zabaldu zen, Lions taldeak urte berean Zeelanda Berrian egindako biran. Ordura arte ez zuten inoiz lortu All Blacksak mendean hartzea, baina bira horretan birritan garaitu zituzten, baten galdu eta beste batean berdindu. 75 urte zeramatzaten Zeelanda Berrikoek etxean halako bira bat galdu barik. Galestarren joko ikusgarria garaile itzuli zen Zeelanda Berritik, All Blacksak lehen aldiz mendean hartuz.

Horrelako istorio gehiago ezagutzeko hona liburu gomendio bat: Fermin De La Calleren *Con Fina Desobediencia*, errugbiaren Historiari egindako errebaso bitxi, arin eta entretenigarria.

Berrizko jaiak

Argazkiak: UNAI OLASO



Jairik jai!

Argazkiak: UNAI OLASO

Apatako jaiak



Botikak

BARIKUA, 7 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 8 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

DE DIEGO,
NTXAURRONDO 22 - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6 - ELORRIO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

DOMEKA, 9 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 10 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 11 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 12 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 13 · 09:00-09:00

MUGICA,
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Danel (943. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Zorionak, **Iraide**! Gure etxeko neskak 10 urte egin ditu uztailearen 7an. Oso ondo pasa eguna eta musu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Inhartxu**, gure pelotari txapelduna!
Konturatu gabe 9 urte egin dituzu. Jarraitu horren alai izaten, maitia! Musu potolo bat Intza, Irati, aitatxo eta amatxon partez!



Zorionak, **Nahia**! Gure etxeko printzesa txikiak 12 urte egin zituen eguaztenean. Egun ederra pasatu zenuelakoan, musu potolo bat aitatxo, amatxo, Maialen eta Paurelen partez!



Domekan, **Ekaitzek** 11 urte egingo ditu. Muxu handi bat etxeko guztion partez, eta, batez ere, Haizea, Aratz eta Ametsen partez.



Paulek 4 urte egingo ditu domekan. Musu bat etxeko danon partez. Baita Haizea, Aratz eta Ametsen partez ere.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 17° / 29° ☁

ASTELEHENA ↓ 16° / 26° ☁

EGUAZTENA ↓ 16° / 26° ☁

DOMEKA ↓ 18° / 28° ☁

MARTITZENA ↓ 17° / 24° ☁

EGUENA ↓ 15° / 25° ☁

UDAKO ORDUTEGIA



Ekaina

1 2 3 4
5 6 7 8 9 10 11
12 13 14 15 16 17 18
19 20 21 22 23 24 25
26 27 28 29 30

Uztaila

1 2
3 4 5 6 7 8 9
10 11 12 13 14 15 16
17 18 19 20 21 22 23
24 25 26 27 28 29 30

Abuztua

1 2 3 4 5 6
7 8 9 10 11 12 13
14 15 16 17 18 19 20
21 22 23 24 25 26 27
28 29 30 31

Iraila

1 2 3
4 5 6 7 8 9 10
11 12 13 14 15 16 17
18 19 20 21 22 23 24
25 26 27 28 29 30



● 8:30-13:30 GOIZEZ
● ITXITA




Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



CAYO HUESO
Oihane Amantegi
(Elkar)



POSTAL BAT DESERTUAN
Julen Apella
(Balea Zuria)



ALFERRIKAKOAREN
BALIOA
Nuccio Ordine
(Pamiela)

"Zalduaren lan soziala eten ez dadin, lanean jarraitzea da dugun erronka"

Arkaitz Padilla Zaldibarko Zaldua kirol elkarteko presidentea jaurti du herriko jaiak iragartzeko txaplogua. Aitortu duenez, denak emanda biziko ditu jaiak, urtero legez



Arkaitz Padilla Ibarra

Zaldua kirol elkarteko presidentea

ZALDIBAR | 1976

ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Festa giroan murgilduta daude Zaldibarren, aurten 50 urte bete dituen Zaldua kirol elkarteak jaiak iragartzeko txaplogua jaurti ondoren. Azken zortzi urtean elkarteko presidentea den Arkaitz Padillagaz elkartu da ANBOTO, jaiak hasi baino egun batzuk lehenago.

Pozik hartu duzue gonbidapena. Norzuk izan dituzue gogoan?

Azken 50 urteotan Zaldua kirol elkartean lan egin duen jendea.

Urte berezia izan duzue hau. 50 urtez 900 bazkidetik gora dituen elkarte mantentzea ez da marka txarra.

Hala da, eta oso pozik gaude. Lan

handia dago horren atzean. Udaleko diru laguntzari eta laguntzaileei eskerrak, eta lan eginda ateratzen den dirutxoagaz egiten dugu aurrera. Gainera, antolaturiko ekintzek jendea mugitzen dute. Urteurreneko ekintzetara ere jende asko batu da.

Futbol, saskibalo, pilota eta mendi taldeek osatzen dute elkarte.

Bai. Futbol taldea 1973an sortu zen, Zaldibarko Koralarren bitartez. Handik hiru-lau urtera, pilota elkarte sortu zen, eta geroago saskibalo eta mendi taldeak etorri ziren. 1978rako denak elkartuta ekin zioten.

Oraindino futbola da nagusi?

Bai. Pilotan jokatzen duten ia ume guztiak futbolearen ere badabilta, eta 12-13 urteagaz gehienek futbole-

Parrandazalea izan naiz, eta oraindino ere gustatzen zait. Herriko jaietan ez dut inoiz ere hutsik egin

rako aldaketa egiten dute; zoritxarrez, nire ustez. Batez ere, lagun taldeak erakarrira joaten dira. Futbola

talde kirola da, eta pilotan, ostera, bakarrik edo bikotekideagaz jokatzen da. Bada, bakarrik geratuz gero futbolera aldatzen dira azkenean. Herri guztietan gertatzen da hau, ez Zaldibarren bakarrik.

Zu zeu ere futbol taldearen bitartez sartu zinen elkartean.

Bai. Umetan futbolearen jokatu nuen eta 15 bat urteagaz entrenatzaile hasi nintzen umeekin. Hainbat mailatan ibili nintzen, nagusiak entrenatzerara heldu arte, eta zuzendaritzako kide ere izan naiz urte askoan. Zaldua Kirol elkarteko presidentea kargua 19 urteagaz hartu nuen lehenengoz; bigarrenez, orain 25 urte. Eta, orain zortzi urte hirugarrenez. Ia erreleboa datorren!

Zaldibartar gutxi izango da bere bizitzan Zaldueguz batere loturarik izan ez duena. Horrek egiten du berezi elkarte

Atzera begiratuta, zelako ibilbidea izan da Zalduarena?

Orokorrean oso ona, esango nuke.

Zerk egiten du berezi Zaldua?

Zaldibartarrik gehienak oso lotuta daude Zaldueguz, edo horrek batzen duen elkarteren bategaz. Biztanleriaren ia %33 bazkide izateak asko esan gura du. Zaldibartar gutxi izango da bere bizitzan Zaldueguz batere loturarik izan ez duena. Igual, horrek egiten du berezi. Beste hainbat elkarte bateratzea ere bada berezia.

Beste 50 urte beteko dituzue?

Hala espero dugu! Eta gehiago ere bai (barrez). Elkarte honen lan soziala ezin da eten. Umeek, eta orokorrean zaldibartarrek, kirola egiteko aukera izatea da gure helburua. Zalduaren lan soziala eten ez dadin, lanean jarraitzea da dugun erronka.

Zelan bizi dituzu jaiak?

Parrandazalea izan naiz, eta oraindino gustatzen zait. Herriko jaiak denak emanda bizi ditut. Inoiz ere ez dut hutsik egin, sakratuak dira. Inoiz ere ez naiz joan sanfermine-tera. Egunero irteten naiz. Baina gauez gutxiago nabil orain (barrez).

Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren
Jubilatua/ Irakaslea



Erreleborik ez

Euskal Herrian gero eta ume gutxiago jaiotzen da eta populazioa nahiko zahartuta dago; ondorioz, zenbait lanbide langile faltan dago eta hori arazo handia bihurtzen ari da. Hona hemen, horri aurre egiteko proposamen batzuk:

Baserritik bizi direnak 10 urte barru %65 jubilatu omen da. Honi buelta emateko lurra gorde beharko da beraien eskuetan jartzeko eta beraiek sortzen dituzten jakiei dagokien prezio egokia jarri. Osasun alorrean gero eta mediku gutxiago dago eta honek osasun-kalitatea murrizten du. Hau konpontzeko MIR egiteko aukerak gehitu behar dira. Kontuan izan 8.550 plaza eskaini direla eta 12.668 mediku aurkeztu direla; orduan, 4.118 kanpoan geratu dira. Konponketa erraza, formakuntza-eskaintza haunditu. Eraikuntzan, ostalaritzan, larri eta estu dabilta langileen bila. Honi aurre egiteko eta lanbide hauek erakargarri bihurtzeko lan baldintzak eta soldata duinak mahairatu behar dira. Industrian langile kualifikatuak falta ei dira. Honen konponbidea hezkuntzan dago. Hutsuneak non formakuntza han, eta goi mailako teknikoak enpresen eskuetan jarri eta hauek, horien fideltasuna indartzeko, mimatu.

Herrietako komertzioak pertsiana jaisten ari dira, errentagariak ez direlako edo jubilatzen direlako. Berriz pertsiana horiek jasotzeko internetetik erosi beharrean herrian bertan erosi behar dugu eta udalak erraztasunak eman errelebo hori burutzeko. Eta horrela jarrai dezaket, asko ez dela gure herrietan presente zeuden lanbideekin. Esate baterako, jostun, zapatari, argazkilari, erlojugile, arotz, etab.

Hor dago gaurko egoeraren argazkia. Biharko utzi beharrean martxan jar gaitezkan hutsune horiek betetzeko.

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka Gimnasio

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude. Estás en tu casa www.sukia.com

KALERATZE prezio bereziak